

ERABAKIA, Nafarroako Gobernuak 2025eko martxoaren 19an hartua, Nafarroako Gobernuaren Publizitate Institutuzionalaren 2025erako Plana onesten duena.

Irailaren 13ko 57/2010 Foru Dekretuaren bidez, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren esparruan laguntza-kontratuak egiteko eskumenak berrantolatzen dituen abenduaren 17ko 255/2007 Foru Dekretua aldatu zen. Bertan, beste kontratu batzuen artean, publizitate instituzionaleko kontratuak zentralizatu ziren Nafarroako Gobernuarentzat eta haren erakunde autonomoentzat.

2023 - 2027 legegintzaldirako, Komunikazioaren eta Proiektzio Institutuzionalaren Zuzendaritza Nagusia da publizitate kontratu guztiak kontratatzeko organoa eta horien kudeaketa unitatea Komunikazio Zerbitzuko Publizitate Institutuzionalaren, Sare Sozialen eta Ikus-entzunezko Baliabideen Atala.

Kudeaketa publikoa gardena izan dadin, komenigarria da Foru Gobernuaren publizitate instituzionalaren arloko urteko plangintza jendaurrean jartzea. Erregulazio-eremu horretatik kanpo uzten da turismoa sustatzeko publizitatea, funtsean Foru Komunitatetik kanpo egiten dena eta bisitariak erakartzeko helburua duena.

Publizitate kudeaketa Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentuak egiten du zeharka, baina Foru Administrazioa osatzen duten departamentu eta erakunde autonomoei dagozkien komunikazio ekimenak islatzen ditu. Beraz, Nafarroako Gobernuak onesten du plangintza hori.

Ariketa hori baliagarria da herritarrentzat, baliabide ekonomiko horiek publizitaterako zein gai eta helburutan

erabiliko diren jakiteko eta benetan emandako zerbitzu publikoa ebaluatu ahal izateko. Gainera, publizitate merkatuari aukera ematen dio Foru Administrazioak, sortu ditzakeen negozio-aukerak ezagutzeko, Foru Komunitateko publizitate eragile garrantzitsuenetako bat baita.

Publizitatearen kudeaketa egiteko, lehentasunak ezartzen dira, baliabideak mugatuak izateagatik; jarduerak planifikatzen dira, emaitzak ebaluatu, eta kudeaketa gardena izaten da, Nafarroako Gobernuak egiten dituen publizitate-kontratazioen gastuen berri zehatza ematen baita Gobernu Irekiko Atariaren bidez, open data formatuan. Publizitate instituzionalaren kontratazioa Toki Administrazioko Kontseilariak, Gobernuaren bozeramaile gisa emandako 1/2003 Foru Aginduari arabera egiten da. Agindu horrek publizitate instituzionalaren inbertsioa arautzen du, eta audientzia ezartzen du hedabideetan publizitatea banatzeko oinarritzko irizpidetzat.

Akordio honen xedeko plangintzak Komunikazioaren eta Proiektzio Instituzionalaren Zuzendaritza Nagusiak zein beste administrazio-unitate batzuek finantzatzeko dituzten publizitate-ekintzak aurreikusi eta egutegian jasotzen ditu. Unitate horiek dagoeneko onartu dituzte dagozkien gastuak, eta Zuzendaritza Nagusi horren esku jarri dituzte dagozkien kontratuak egin ahal izateko.

Laburbilduz, 2025erako publizitate-plangintzak 19 publizitate-kanpaina zabalitzea aurreikusten du, 1.387.400 euroren truke. Zenbateko horretatik 420.000 euro Komunikazioaren eta Proiektzio Instituzionalaren Zuzendaritza Nagusiak finantzatzeko ditu, eta 967.400 euro beste administrazio-unitate batzuek.

Gainera, Planean, Komunikazioaren eta Proiektzio Institutuzionalaren Zuzendaritza Nagusiak finantzatzeko dituen beste publizitate-inbertsio batzuk aurreikusten dira:

- 122.040 euroko inbertsioa, "Nafarroa Marka", eta lurralde-marka horrekin lotuta, Departamentuetako bestelako ekimenak indartzen dituzten publizitate-ekintzetarako (planifikatu gabeak).

- 60.000 euro, sustatzen dituen kanpaina instituzionaletako publizitate-sormena kontratatatzeko.

- beste 18.352 euro, sustatzen dituen kanpainak sare sozialetan publizitate bidez zabaltzeko.

Azaldutako publizitate-inbertsioak guztira 1.587.792 eurokoak dira; hau da, plangintza 2024ko Urteko Planean jasotako inbertsioa baino %13,2 handiagoa da.

Ondorioz, Nafarroako Gobernuak, Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentuko kontseilariak proposatuta, honako hau

ERABAKI DU

1. Nafarroako Gobernuaren Publizitate Institutuzionalaren 2025erako Plana onartzea, erabaki honi erantsitako agiriaren arabera.

2. Erabaki hau eta Nafarroako Gobernuaren Publizitate Institutuzionalaren 2025erako Plana Nafarroako Gobernu Irekiaren interneteko atarian argitaratzea.

3. Erabaki hau helaraztea Komunikazioaren eta Proiektzio Institutuzionalaren Zuzendaritza Nagusiari, Nafarroako Gobernuko Departamentu guztietako idazkaritza tekniko nagusiei, Kontu-hartzailetza Nagusiari eta Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentuko Kontu-hartzailetza Eskuordetuari, dagozkion ondorioak izan ditzan.

Iruñean, bi mila eta bosteko martxoaren hemeretzian.

NAFARROAKO GOBERNUKO
KONTSEILARI IDAZKARIA

Félix Taberna Monzón